

Arkupéan

urola kostako hitza
2013ko maiatzaren 9a

II-III Iritzia

IV-V Sakonean Txapela jantzi aurrekoak

VIII Azkena Azkoitiko begiak, San Martin

Manu Etxezortu

Zarautzekin konexioa



Manu Etxezortu Zarautzen, bizikletarekin. ONINTZA LETA ARRIETA



ENERGIA AURREZTEKO SISTEMAK INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

- Eraikuntza berriak
- Etxeko erreformak
- Merkataritza eta ostalaritza
- Komunitate mailako mantenuak

ARGIZTAPENA

- Kontsumo txikiko lanparak
- Led-s Teknologia

DEKORAZIOA - OPARIAK



Araba kalea, 41 ZARAUTZ
Telf.: 943-13 04 33
Mug.: 619 523 539
azkuelek@euskalnet.net

K21



AIRE EGOKITUA

Hotza edo beroa, sasoiaren arabera, makina berarekin

Kontsumo txikia!

Jarri zure etxebizitzan, komertzioan, ostalaritza gunean edo industria arloan



TELEKOMUNIKAZIOA

- Atezain automatikoak
- Bideo bidezko atezain automatikoak
- Soinu instalazioak
- Rack armairuak



ANTENAK

Partikularrak edo komunitarioak

Amonak egingo zuen



Bostekoa
Alaitz Olaizola

Beti puntua egiten ikusten omen zuen: gosaldurik, ondoren, bazkaldurik, arratsalde osoan...

Ezin omen zuen ulertu zergatik egiten zuen hainbeste puntu. Zertarako? Norentzako? Interesgarria egiten omen zizaiton begira egotea, isiltasunean. Patxadaz, lasai, akatsik gabe...

- Behin galdetu omen zion:
- Zertarako ari zara puntua egiten, amona?
 - Freskatzen badin ere, badaezpada...
 - Udan gaude, amona!
 - Etzagon jakiterik, prest egon beharra zagon.
 - Norentzako ari zara puntua egiten, amona?
 - Hire ilobak laster ume bat izango din.
 - Nereak? Hamar urte baino ez ditu eta!
 - Haziko dun.
 - Norentzako da lepoko hori?
 - Hire osaba Antoniorentzat.
 - Amona, urtebete pasa da Antonio hil zenetik.



«Puntua egiten ikasi nahiko nuke amona izaterako». HITZA

- Hil aurretik eskatu zidan.
- Zergatik egiten duzu puntua eskuetako minnez bazaude?
- Egiten ez badinat, bihotzean izango dinat min.
- Berak ezin ulertu amona... Puntua egitea, bihotza... Non dago lotura?
- Amona hil zenean, amari galdetu omen zion:
- Amonak betidanik izan du puntua egiteko ohitura?
- Ez. Gaixoa. Sekula ez zuen astirik izan. Umeak hazi eta hezi, etxeaz arduratu, eskolako lanekin lagundu. Besteentzat bizi zen.

- Bera ere zahartu zenean ulertu omen zuen: amona ez zen besteentzako puntua egiten ari, berarentzako baizik, hutsa ez sentitzeke.
- Zahartzaroari buruzko gogoea bat egitea tokatzen zait, eta sarean begira, irakurri berri duzuen honekin topo egin dut, tira, antzeko zerbaitekin.
- Nire amona imajinatu dut etxeko sukaldean, puntua egiten. Inork jantziko ez dituen jertseak egiten pazientzia handiz, poliki, lasai, irribarrez, kontzentratuta.

- Barruko deia omen... Haurra nintzela saiatu izan naiz puntua egiten, ama noizbait ikusita go-go piztuta edo. Zuzen ezer ez, hamar punturekin hasi eta ilara baikoitzeko bat gehiago. (Gure amak esaten du lepoko bat egiten hasi nintzela, eta galtzontzilo itxura hartu zuela azkenerako!! Ni ere akordatzen naiz. Gorria zen).
- Ez dut geroztik puntua egiteko gogorik sentitu, ez eta beharrik ere. Baina beharbada, iritsiko da garaia. Presta nadin ordurako! Behin ikasitako ez omen da sekula ahazten eta.... Bizikletan ibil-

tzea bezala. Serio jarrita, puntua egiten zuen amonaren istorioak zer pentsatua eman dit.

Aitonak kokozko opilak ekartzeko zizkidan gaixo nengoen baikoitzean. Hil zenetik ez ditut berriro probatu. Kokoa ez da bereziki gustatzen zaidan zerbaitekin, baina aitonaren opilak, haiek bai goxak!

Amonak, berriz, ezin izan sekula ezer ekarri, ezer oparitu... Ez zegoen... Aspaldi joan zen... Ez zuen punturik egiteko astirik izan...

Etorriko zen ikastolara nire bila, batzuetan amona bat eta besteetan beste. Igual errieta egingo zidan sagar haziak lurretan sartu ostean lokatzaz beteta bueltatzen nintzelako: «Zer esan behar din hire amak? Herria sagarrondo bezala betetzearekin ados nagon, baina hire amak hire soinekoari begiratuko zion!».

Noka hitz egingo zidan, seguru. Baietz, amona?

Amonak puntuan egindako jertse ziztrin bat banu sikiera... Nire alabak jantziko zuen, dudarik gabe. Amonarena zelako, nire amonarena zelako.

Eta ez zion denborarik eman... Uzten zaituztet. Puntua egiten ikasi nahiko nuke amona izaterako, eta horrek, bere denbora eskatzen duelakoan nago!

Amaren eguna pasatu berri den honetan, ba al dago amonaren egunik? Ez badago, izan bedi gaurkoa!

Topa, amona!

Irudia > Gizartea



BERDINTASUN PLANAREN BAITAN HEZI ETA IKASTEN

Beizama, Errezil, Bidegoian eta Albiztur biltzen dituen Saiaz gizarte zerbitzuetako udal elkarteak Berdintasun Planaren harira bi ikastaro antolatu ditu, biak ere zaintza genero ikuspegia kontuan hartuta. Ikastaroeta-

ko bat etxeko laguntzan eta eguneko zentroetako langileekin egiten ari dira (goian, ezkerreko argazkian ageri dira parte-hartzaileak). Berdintasun Planaren baitako beste ikastaroa, berriz, zaintza behar duten

pertsonen familiakoekin, harrera familiako kideekin edota interna bezala zaintzen jarduten dutenekin ari dira egiten (eskuineko irudian ageri dira ikastaroko parte-hartzaileak). SAIAZ GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA

Zuzendariari**Azpeitiko San Martin egoitza eta Zumarragako ospitalea**

Adinaren aginteak inposatuta, joan zen gure ama ere San Martin egoitzara. Egunaren hogei-talau ordutan sendagile arreta eta zaintza espezializatua eskaini zezaiokeen herriko zentro bakarrarera.

Eta, hara! Gure txundidura, ordura arte erabat arrotz eta urruna somatzen genuen egoitzaren eskaintza, ezinbesteko zerbitzu sozial, konprometitu eta terapeutikoa dela ezagutu dugunean, gertakari gordinenetakoa desanparoa.

Egoitzaren arduradun eta langileek kontzientzaren zerga humanista eta prestakuntza garaikidearekin profesionalak izatetik harago, pertsona izatea profesionaldu dutela islatzen dute. Norberaren babes eta historiaren gordailu den betiko «etxea» utzi eta bizitzaren neke guztiak bat eginda, egoitzara iristen diren gure helduen atsedean leku abegikor eta eroso bilakatu. Beti, eta edozein harremanetan, irrifarra dutela hitzaurre, bai senide zein laguntzatzat.

Aipamen berezia, irribarretxo bat edo begirada maitekor baten truke, konpania egitera edo pasiatzera ateratzeko, egoitzara hurbiltzen diren boluntarioen sensibilitate emankorrari.

Baina orbeltzen zihoan gure amaren osasunaren desanimok, egoitzako aingerua zirudien erizainaren zaintzapean Zumarragako ospitaleko larrialdietara eramanez gintuen, barnean generamanari itzaltzen zihoazkion argi izpiak, anbulantziaren gainean lasterkari.

Heriotzaren guda-zelai horretan, bost egun luzez, medikuntzaren bokazioa islatzen zuten pertsona kualifikatu eta inplikatuenez, begiramenduz artatu, diagnostikatu eta itzaltzen zihoanari pindar itxaropentsu bat irazekitzen ahalegindu ziren, diru soilak erosi ezin duen arreta zentzudun batean. Atakan eta onberaz, beti, sendatuko zutenaren mezu itxaropentsuak txertatuz. Bidaiaren azken metroak ibiltzen ari zenaren morfina psikologiko eraginkorrera.

Amaren zaindari aritu ginenok, adioa somatu ordurako gertutasun eta ulermen zintzoa jaso genuen, ukendu estimatu eta ahazte zina.

Oraindik, gizakiaren balioa lehenetsita, gizarte zerbitzu eta osasun zaintza eraginkor, esku-zabal eta bihozbera batean bizi garelako erakutsi digute.

San Martin egoitzako zein Zumarragako ospitaleko arduradun eta langileoi (inoren sufri-



Azpeitiko San Martin egoitza. HITZA

mentuaren aurrean konformagaitz eta esku-lagun zaretenoi) gure esker onarekin batera, inoiz ezintzen bazarete, jaso dezazuela horrenbeste ematen duzuenetik opa dizuegu.

Merezia duzue, bihotzez!

Jesus Lopetegi eta Nerea Lopetegi. Azpeitia.

Begirada bat: erosi ezin dena

Duela hilabete batzuk, kalean nindoala, futbolearen taldekide izan nuen baten aita ikusi nuen, oinez, errepidearen beste aldean. Berak ez ninduen ikusi. Ni, al-diz, segundo batzuk begira geratu nintzaion. Izan ere, zerbait antzeman nion aurpegian; zer edo zer berezia azaltzen zuen begirada hark: zoriona, patxada, apaltasuna, lasaitasuna... argitasun moduko bat. Bide batez, hausnarketarako bide eman zidana.

Bizitza osoan langile fina izandakoa, jubilatu berria zegoen, pentsio minimoarekin. Barne-barneraino sartu nahi diguten sistemako goialdekoen begietan, ezer handirik lortu ez duen beste giza «baliabide» soil bat izango da ziurrenik. «Arrakasta» deitzen duten hori ezagutzera iritsi ez den «galtzaile» bat; zerranda luze horretako beste bat. Orain pentsio eskas batekin ahal duen bezala bizirautea mugatuko dena. Hots, «erabili eta bota» leloaren beste biktima bat.

Nik, aldiz, zerbait handia antzeman nion egun hartan. Zer dela eta, ordea?

Ez zuen inoiz ondoren itzuli ezingo zuen mailegurik eskatuko, etengabe sortzen dizkiguten behar artifizialen jokotik at mantenduz une oro. Ez zenuen luxuzko kotxe handiak gidatzen ikusiko, ezta jatetxe garestienetatik irteten ere. Inoiz burtsan inbertitu gabea, espekulazio eta burbuila finantzario moduko hitzak komunikabidetatik ezagutuko zituen. Bere erretiro egunean, ez zitzaion bizitza osorako soldatarik geratuko, ez eta milioi ugari erretiro berezirik ere. Bere seme-alabek ez zuten uni-

bertsitate pribatu garestienetan ikasiko, ezta hemezortzi urte bete bezain laster opari gisa kotxe berria jasoko ere. Ez zioten lehenetsuzko traturik eman go banketxeetan edota herriko establezimenduetan. Ziurrenik ez zuen jakingo paradisu fiskalak non dauden, nolakoak diren, eta are gutxiago nola iristen den haietara.

Baina begirada hark bazuen azken aldiko berri gris, perspektiba ezkor eta bisai goibelen artean, ez ohikoa bilakatu den zerbait. Guztioi pixkanaka-pixkanaka erazten ari zaizkigun hori. Eta, egia esan, sakon aztertuz gero, azkenaldia pairatzen ari garen egoera ez da ez gutxiagorako:

Hamarkada luzetan lortutakoa, eraikitakoa egun gutxi batzuetan atzera botaz, oinarritzako behar guztietan murrizketak, bata bestearen atzetik ezartzen ari dira: osasun sisteman, hezkuntzan, gehien behar dutenei laguntzera bideratutako nazioarteko kooperazioan, gastu sozialean, euskaran, kulturaren... Boteredun eta dirudunei gutxien interesatzen zaien horretan guztian, alegia. Eta inolako eskrupulorik gabe gainera, jubilatuaren urteroko txango eta bazkaritarako dirurik ez dagoela esateraino ausartuz. Egungo egoera horiek eragin dutela aditzera eman nahian bezala.

Etengabe, mugarik gabe, gorantz eta gorantz doan langabezia tasa.

Kaleratzeak erraztu eta lan baldintza oro kaskartzea soilik ondorioztatzen duen Lan Erreforma.

Oinarritzako produktu eta zerbitzuen (janaria, ura, argindarra...) garestitze jarraitua.

Gero eta biztanle gehiagorengana, abiadura bizian, zabalitzen ari den pobrezia. Gero eta nabariagoak diren gizarte desberdintasunak. Gero eta gertuago.

Etxe kaleratzeen drama, eta horrek eragiten dituen ondorio larriak.

Lan aukeren faltan, %50etik gorako langabezi tasak bultzatuta, etsipena lagun maletak

egin eta atzerrira joan beharrean aurkitzen diren gazteak.

Ustiapenean espezializatutako multinazional erraldoien txotxongilo soil diren nazioarteko erakunde zein gobernuak. Erakunde publiko nagusien jarduna gidatzen duen interes (diru) pribatua.

Doakoa eta unibertsala izan beharko lukeen sistema publiko ezabatu eta privatizazioak sustatzeko diseinaturiko politikak.

Herriar arruntak zigortu eta errenta zein fortuna handiak salbuetsiz, fraude fiskala bideratzen duen alderantzizko fiskalitatea.

Guztion dirutik entitate finantzarioak erreskatatzeko bideratutako milaka milioiak.

Herriarrontzat beharrezkoak ez diren azpiegitura erraldoietan zein gastu militarrean xahutzen jarraitzen den dirutza.

Agintari zein alderdi nagusien handizaletasuna, eskandaluzko dietak, korrupzioa eta itxurakeria. Elkarlanean aritzeko eta irtenbideak aurkitzeko borondate falta.

Egoeraren larritasuna nabaria da, baina are arduragarriago iruditzen zait honen aurrean gure gobernu eta agintariak hartzen ari diren jarrera. Edo hartzen ari ez direna. Arazoak konpontzera baino, arazoak handiagotzera eta ugaritzera daramatenak.

Baina, hala eta guztiz ere, errealitate gordin honen guztia- ren gainetik, hasieran aipatu dudana begirada harekin geratu nahiko nuke. Gauzak zuzen egin izanak ahalbidetzen duen duintasuna, kontzientziaren lasaitasuna, gertuko zein ondoan ditzuzunen maitasuna eta begirunea islatzen zituena. Hori bakarrik. Hori dena.

Begirada bat. Merkatuen mundu honetan ondasun edo diruaren bidez eskuratu ezin dena. Egun eros ezin den gauza apurtenariko bat. Itxaropenaren sugarra oraindik ere bizirik mantentzen dela gogorarazten diguna. Gizarte juxtuago eta guztiontzako bat posible dela erakusten duena.

Azken finean, munduari beste era batera begiratzeko begirada bat.

Aitor Irigoien Odriozola. Getaria.

Eman hartu nahi duzun mundua

Azken sei hilabeteetan, auzoz auzo ibili gara *Zero zabor Atez Atekorik gabe posible al da?* hitzaldia ematen. Hitzaldi zikloa 2012ko azaroan Azken Portu auzoan hasi eta apirilean alde zaharreko Dotorekua etxean bukatu dugu, tartean Vista Ale-

gre, Iñurritza eta Mitxelena auzoetatik pasaz. Vista Alegre auzoan izan ezik, hitzaldietara etorritako batez besteko herritar kopurua 22 lagunekoa izan da eta hauek oso giro onean garatu dira, kezkek, zalantzak, aldeko eta aurkako iritziak mahai gainean jarriz eta eztabaidatuz.

Hitzaldi zikloaren helburua, hondakinen inguruko eztabaida datu eta emaitzetan oinarrituta ematea zen neurrian, helburua betetzat ematen dugu. Gaur egun inor gutxi jartzen du zalantzan, hondakinen gaikako bilketan emaitza txukunak lortu nahi badira derrigortasuna eta kontrola beharrezkoak direla.

Datozen egunetan, hitzaldi zikloak lekukoa MUNDUmob ekimenari emango dio. MUNDUmob Gipuzkoa Zero Zaborrek antolatutako ekimena da, hila-betez luzatuko da, maiatzaren 4an Oreindainen hasi eta Gipuzkoako herrietatik pasatu ondoren ekainaren 8an Donostian bukatuko dena.

Ekimenaren bidez iraunkortasunaren printzipio hau aldarrikatu nahi da: Mundua gure aurreko belaunaldiak jaso duten baldintza berdinetan jasotzeko eskubidea dugu, baita gure ondorengoei gutxienez baldintza berdinetan uzteko betebeharra ere. Eskubideak eta betebeharrak, txanponaren bi aldeak, eta biek hitz jokoa osatuz egin da ekimenaren mezua, *Eskubideak betebehara direlako, eman hartu nahi duzun mundua.*

Ekimen honek baditu aurrekariak, Zubietan eginiko Flashmoba eta Zurriolako hondartzan eginiko haize errotaren mosaiko erraldoia. MUNDUmoben mezua lantzeko mundu bola eta propio eginiko dantza erabiliko dira, aldarrikapena eta jaia uztartuz modu umoretsuan.

Zarautzen maiatzaren 19an ospatuko da MUNDUmob eguna. Eguerdian kalejira egingo da eta herriko gune desberdinetan Mundumob dantza dantzatuko da, bukatzeko mokadutxoren bat ere egongo delarik indar berrirezko.

Dantza ikasteko aukera datozen bi ostiraletan (maiatzak 10 eta 17) izango da Gaztelekuan arratsaldeko 6etan. Gaztelekura etortzerik ez duenarentzat Interneten badira bideo didaktikoak (<http://www.gipuzko-azz.com/zerozabor/ekimenak/mundu-mob/koreografia-ikas-teko-tutoriala/>) norberak nahi duen tokian ikasi ahal izateko. Hortaz aitzakiarik ez dago, gure jatorri afrikarre bide eman, animatu eta dantzatu.

Saioa Urdanpilleta Eizagirre eta Bartolo Iribar (Zarautz Zero Zaborren izenean). Zarautz.

Ez dute kale egingo, «ziur»



Libe Altuna ezkerrean, eta Matxalen Ziarsolo eskuinean, taldeko elastikoa eusten. AITOR MANTEROLA

Ezuste korrik egon ezean, Espainiako Ligako txapelkunak izango dira Bera Berako jokalaririk, etziko partida irabazita

Aurreko sentipenez eta eskubaloien norabideaz aritu dira Altuna eta Ziarsolo

Aitor Manterola

Bera Bera eskubaloitalko Espainiako Liga irabaziko du etzi, okerrik ez dela. Castron lortuko du, azken jardumaldian, eta bere historiako lehen Liga titulua izango da. Libe Altuna zarautzarrak eta Zarautzen bizi den Matxalen Ziarsolok une zoragarri hori bizi ahal izango dute.

Entrenamendurik ez dutela eta, beste zeregin batzuetarako baliatu dute astearte goiza Libe Altunak (Zarautz 1985) eta Matxalen Ziarsolok (Ermua, 1982). Besteak beste, UROLA KOSTAKO HITZA-rekin berriketan jarduteko. Aste berezia izaten ari da haintzat, eta taldekide guztientzat. Etzi, Liga irabaziko dute aurreneko, okerrik ez dela behintzat, eta hainbat kontu izan ditugu hizpide: besteak beste, aste berezi hau, lehiaketa bera, eta eskubaloien geroa.

«Irabazita dugunik ez dugu pentsatzen», dio Ziarsolok, etziko partidaren inguruan buruan zer duen galdetutakoak. «Baina irabaztea erraza izan daitekeela pentsatzen dut», zehaztu du. «Dozeinen kontra gal dezakezula ere pentsatzen dut, baina geure eskuan dago Liga irabaztea. Ezin digu ihes».

Edozeinen kontra gal daitekeela uste du Ziarsolok. Baina Castron, azken sailkatuaren aurka ere bai? «Gal daitekeela iruditzen zait, ez baduzu dakizuna egiten», aitortu du. Baina laster ezabatu du mamua: «Dakigun bezala jokatu dugu, eta irabazi egingo dugu». Ados dago Altuna: «Irabazteko gogoak ondo jokatzera eramango gaituela uste dut».

Aste berezia dute eskubaloitalko jokalariek, buruari eman eta eman. «Esperientziak lagundu egiten du, eta bakoitzak badaki nola aurre egin, zer egin behar duen kontzentrazioa ez galtzeko», azaldu du Altunak. Ziarsolok dio aurreko partidaren tentsioa handiagoa zela. «Hor geneukan dena jokoan, eta taldeak ondo erantzun zuen. Larumbatean pentsatu genuen ia eskuan dugula Liga, eta orain, aste honetan, berriz jarri behar dugu topera, irabazi ahal izateko». Ziur dago ermuarra: «Ez dugu kale egingo».

Txapelkunak izango diren unea burutik pasa zaien galde-

tzea ezinbestekoa da. «Niri, behintzat, ez zait horrelakorik etorri burura», dio umil zarautzarrak. «Ez dut barneratu txapelkun izan gaitzekela». Ziarsolok taldekidearen tonuari eutsi dio: «Inoiz ez dudanez Liga irabazi, ez dakit nolakoa izan daitekeen irudi hori».

Aste berezia izanagatik, entrenatzen jarraitu behar. «Astelehenean jai eman ziguten, eta gaur [astearte] dugu asteko lehen saioa», azaldu du Altunak. Berezitasun gutxi izango dute saioan: «Ohikoa baino laburragoa izango da, baina bestela, astean zehar normal entrenatuko gara».

Ospakizunak hasita

Aurreko larumbateko partidaren ostean hasi ziren Liga eskura dutela ospatzen. «Zale asko bildu zen harmailtan, eta Reyesen [Reyes Karrere entrenatzailea] eta Eiderren [Eider Rubio taldekidea] jazkeneko partida izan zen zaleen aurrean», hasi da azaltze Ziarsolo. «Berezia izan zen, eta uste dut Castroko ospakizuna ez dela hainbestekoa izango; larumbatekoa ederra izan zen, zaleen aurrean».

Castron, etxetik kanpo irabaziko dute, izan ere, Liga, okerrik ezean. Eta «pena pixka bat» ematen die horrek. Hala aitortu du Altunak: «Polita izango litzateke gure jendearen aurrean irabaztea». Eta umore ukitua jarri dio segidan: «Baina oso abilak gara azken unera arte tentsioa mantentzen, eta orain ere azkenera arte egon behar zain».

Dena den, Castro ez dago urrutiti, eta bertan izango dituzte zaleak, animatzen. «Badakit zale taldeak autobusa antolatu duena, eta mailak hobera egingo du». Ez du zalantzarik Altunak. «Lehen beti kanpotik ekartzen zen jendea, eta etxeko hiruzpalau jokalarik taldea osatzen zuten». Oraingo egoerak taldeei etxeko aldeko benetako apustua egiteko aukera ematen diela uste du.

Bera Berak beti egin du etxeko alde, ordea. Horren adibidea diru Altuna eta Ziarsolo. «Bera Berak bere bideari eutsi dio diru kontuetan eta helburuetan, ez ditu gorabeherak eduki urte batetik bestera. Urte askotako lana da hau, eta horri meritua kentzea ez zait zuzena iruditzen», dio Ziarsolo.

Partida bat berdindu eta beste bat galdu egin genuen, eta konturatzerako laugarren postuan ginen. Urtarrilera arte ez gara lehen postuan jarri», jarraitu du memoria egiten. «Baina liga bat hori da, ezin duzu kale egin, eta guri beti kostatu izan zaigu etxetik kanpo ondo aritzea. Konturatzen zara liga irabazteko ezin duzula partidarik galdu. Gu faborizotzat jotze hori ez nuen ondo ulertzen, ez dugulako oraindik bat ere irabazi. Hau irabazten badugu, datorren denboraldian faborizotzat jotzea ulertuko nuke, ordea», egin du zehaztapena ermuarrak.

Altunak heldu dio hariari: «Guretzat erregularitasuna lortzea izan da beti zaila, eta orain lortu dugu gabezia hori konponetzea». Eta zera argitu nahi izan du: «Beste taldeak diruz gaizki zebiltzala ikusten genuen, eta gure proiektua sendoagoa dela, eta asko ligak gurea izan behar zuela esaten hasi zen. Baina inork ez digu ezer oparitu». Besteen arazo ekonomikoak atera ditu zarautzarrak mahai gainera. Garaipenari meritua kenduko dion kezka ote du? «Urtean zehaz jende askok aipatu du hori», aitortu du. Eta Ziarsolok hartu du hitza: «Inori ezin zaio meritua kendu. Bestela zera esan daiteke: Itxako titulua pilatzen hasi zela Sagunto dirurik gabe geratu zelako; eta Saguntok gauza bera egin zuela Ferrobis sosis gabe zegoelako». Eta aldarrikapenarekin jarraitu du ermuarrak: «Espainiako Ligan diru asko egon da bospasei urtean, baina aurretik ez zegoen askorik. Gauzak bere lekuan jarri behar dira, eta ez zait meriturik kendu behar garaipenei, ez gureari, eta ez beste inorenari».

Bera Bera bezalako talde bati eustea zaila dela dio Ziarsolok. «Zaila da egunero entrenatzerako joatea, zaila da hain gazte izanik horrela ibiltzea. Reala, adibidez, ez dago laugarren postuan besteak ez dakit zer egin dutelako. Gure kasuan, denok eman dugu geure onena, eta saria hor dago».

Panorama aldaketa
Azken urteetan talde dominatzaile bat egin izan da Ligan, eta orain, hiruzpalauren arteko borroka dago. «Horrek gazteak goian aritzea aukera ekarriko du, eta mailak hobera egingo du». Ez du zalantzarik Altunak. «Lehen beti kanpotik ekartzen zen jendea, eta etxeko hiruzpalau jokalarik taldea osatzen zuten». Oraingo egoerak taldeei etxeko aldeko benetako apustua egiteko aukera ematen diela uste du.

Bera Berak beti egin du etxeko alde, ordea. Horren adibidea diru Altuna eta Ziarsolo. «Bera Berak bere bideari eutsi dio diru kontuetan eta helburuetan, ez ditu gorabeherak eduki urte batetik bestera. Urte askotako lana da hau, eta horri meritua kentzea ez zait zuzena iruditzen», dio Ziarsolo. «Etxeko jokalarien alde eta haiekin egundoko lana egin du klubak, eta garrantzitsua da hori. Azkenean, emaitzak eman ditu lan horrek, bai joan zen urtean, bai aurten, adibidez».

Libe Altuna eta Matxalen Ziarsolo > Bera Bera

Bera Berak egitura ona duela eta lan ona egiten duela uste dute eskubaloitalko jokalariek, baina talde ona izatea ez omen da irabazteko sekretua. Aldagai asko izan behar direla nabarmendu dute.

«Ezin duzu konformatu irabazi egin duzulako, hobetzen jarraitu behar da»

Aitor Manterola

Ikastolan hasi zen eskubaloian jokatzeko Libe Altuna. Matxalen Ziarsolo, berriz, amak animatu zuen. Biak ala biak taldeko kirola izateak jarraitzen lagundu diela nabarmendu dute. Reyes Karrereri buruz galdetu, ez dutela beren burua beste batekin entrenatzen ikusten diote eskubaloitalko jokalariek.

Bera Bera klub zintzoa dela diozue. Kanpoko jokalariek ekartzeko garaian funtsezkoa izango da hori, ezta?

Matxalen Ziarsolo: Erakargarria da kanpoko jokalarientzat hainbat gauzategi: egitura ona dauka, lan ona egiten du eta abar. Esperio dugu bide beretik segituko duela.

Libe Altuna: Hala da. Ordaintzerako orduan eta egunean dago, eta oso garrantzitsua da hori.

Zein da Liga irabazteko sekretua?

L.A.: Ez da talde ona edukitzea bakarrik. Izan ditugu talde onak, baina helburuak gauzatu ez. Aurreneko, egoera guztiak aldekoak izan ditugu. Bi urtean maila bera eman dezakezu, baina emaitza oso ezberdinak lortu. Azkenean, aldagai asko hartu behar dira kontuan.

Liga irabazteak aldatu egingo al du klubaren egitasmoa?

M.Z.: Ez dut uste aldatuko denik. Aldatzekotan onerako aldatu behar da; esan nahi dut, hobetzen segitu behar da. Ezin da konformatu irabazi egin duzulako. Baina urrutiti dago datorren denboraldian. Aurtengo bukatuko dugu lehendabizi, eta uda ona igaroko dugu gero.

Etorkizunetik goazen iraganera, zuen hasieretara. Zergatik aukeratu zenuten eskubaloia?

M.Z.: Ikastolan hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Ondo moldatzen nintzen, eta aurrera jarraitu nuen. Baina, batez ere, talde kirola delako gustatzen zait. Zerbait irabazten duzuean edo galtzen duzuean, norbaitekin elkar banatzen duzu hori, eta polita da hala izatea. Ez dut esan nahi bakarkako kirolak okerragoak diren, baina nik nahiago ditut taldekoa. Hemen haserretzen bazara, beste batekin banatzen duzu haserrea, edo besteekin haserre-

zen zara [barrez]. Taldeko kirola izateak lagundu egin dit hainbeste urtez segitzeko.

L.A.: Plairoetan ibili nintzen, denak bezala. Gero, gurasoek animatu ninduten kirola egitera, asko egiten ez nuela eta. Ama eskubaloian aritua zen, eta amak bultzatu ninduen. Gustatu zitzaidan, jendearekin ibiltzea gustatzen zait, eta pozik nago. Gainera, emaitza onak lortu izan ditugu Zarautzen, eta horrek lagundu egiten du aurrera egiten.

Zarautzen bizi zara zu, Matxalen. Noiztik?

M.Z.: Zazpi edo zortzi urte izango dira. Mutilla hemengoan nuen, eta hona etorri nintzen. Gurasoek ere hemen zuten etxea, eta pozik nago hemen. Hasieran, Donostia-ra joan nintzen Ermutik, eta gero, hona, Zarautza. Baina jarri Ermukoa naizela! Askok uste dute Zarauzkoa naizela eta [barrezka].

Liga hainbat jokalarik Hungaria, Frantzia eta beste herrialde batzuetara joan dira jokatzera. Tentatzen al zaituzte halako asmok?

M.Z.: Tentatu bai, esperientzia polita izan behar duelako kanpora

bizitzera joate. Baina guk hemen segitzea erabaki dugu, eta pozik gaude. Momentu ona da hemen geratzeko.

Liga irabaztearen oihartzunaren eraginez, kezkatzen al zaituzte taldeko hainbat jokalarik fitxatuko ote duten beste klubek?

L.A.: Beti gertatu izan da hori. Joan eta etorri ibiltzen dira jokalaririk. Batzuk joan egiten dira, eta besteak etorri. Baina hori bai, ez naiz ohitzen gurekin egon eta gero kanpora joaten diren egoerarekin. Agian, gehiago ez dituzte gehiago ikusiko, eta zerbait ematen du horrek.

Reyes Karrere utzi egingo du aurreneko. Zer izan da zuentzat?

M.Z.: Harekin ikasi dugu dena, eta gure taldeekin ere bai. Asko sufriarazi digu, baina fruituak eman ditu. Ikasi ere asko ikasi dugu, eta talde lehiakorra osatu du etxeko jendearekin.

L.A.: Egia esanda, ez dut nire burua beste batekin entrenatzen ikusten.

M.Z.: Nik ere ez.
© urolakosta.hitza.info

Mauka berria

+ sarrera + tragoa

12€

200 sarrera bakarrik

Zuloak Matxura Zigor DZ-k DJ

Maiatzaren 11n 20:30etik aurrera Zarauzko Aritzatalde aretoan

Uda Berri FEST

AZKEN EGUNA mauka.eu atarian

Manu Etxezortu > Irrati esataria

Euskadi Irratiko ahots ezagunenetarikoa du Manu Etxezortuk, 'Faktoria' irratsaioko aurkezleak. Zarautzen bizi da, eta herriaren eta euskarazko irratiaren arteko lotura dotorea eskaini dio egunkari honi.

«Euskarazko irratigintzako aitzindarietako bat da Basarri»

Onintza Lete Arrieta

«Titulu bat jarri diot Zarautz eta irratiaren arteko loturari: *Baxarriren garaitik Arraio irratiara*». Hori esanez sartu da HITZAren erredakzioko bilera gelara Manu Etxezortu irrati esataria (Andoain, 1969).

Zarautzen bizi da orain bost urtetik, eta etxeko lanak eginda ekarri ditu elkarrizketara *Faktoria* saioko aurkezleak. «Hartu ditut bi hitz, *irratia* eta *Zarautz*, eta historian zehar lotura asko daukela konturatu naiz; apuntatzen hasi, eta ikaragarri aurkitu ditut». Poltsikotik paper txiki bat atera du; orriaren bi aurpegiak izen-abizendun zerrenda batek betetzen ditu. Irribarrea aurpegiaren itsatsirik duela, gogo biziz kontatu ditu Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolariaren garaitik Arraio irratiara arteko gizon-emaumeen istorioak.

Basarri bertsolariarekin hasiko gara, beraz?

Bai, hori da nik egin dudana lehen lotura. Jaiotzez erreizildarra zen, baina Zarautzen bizi izan zen, eta nik, kanpotik begiratuta behintzat, zarautzartzat dut. Aurten dira 100 urte jaio zela, eta ospakizun asko daude bere inguruan. Ez dakit ekitaldi horietan irratiari buruz hitz egin behar duten, agian bai eta hanka sartzen ariko naiz, baina iruditzen zait irratiari kapitulu berezia eskaini behar zaiola Basarriren kasuan.

Zergatik?

Bera izan zelako Frankismo garaian euskarazko irratsaio bat egiten lehena. 1950eko hamarkada aldean izan zen, La Voz de Guipuzcoa katean. Maria Dolores Agirre eta biak izan ziren aurrenekoak. Gerra aurretik ere egon ziren euskarazko irratsaioak, baina dena debekatuta zegoen Frankismo garaian, eta haiek baime-na lortu zuten. Niretzat Basarri euskarazko irratigintzan aitzindarietako bat izan zen.

Nolako saioa egiten zuten?

Saioa batez ere baserriarrei eskainita zegoen, eta esan beharra dago lehendabizikoak izan zirela publizitatea euskaraz egiten ere. Iragarki bat asmatu zuten, oso polita, eta gaur egun ere



ONINTZALETE ARRIETA

baliagarria izango litzatekeena. Leloak honela zioen: *Fanderiko pentsuak, ez merkeenak, bai onenak*.

Basarriren ondoren, Xabier Lizardi poetaren izena idatzi duzu.

Hala da. Hark ere izan zuen irratiarekin harremana; eta zarautzarren artean lehena izan zen, gainera. Iaz 80 urte bete ziren irratiko euskarazko lehen emankizuna egin zutenetik. Joseba Zubiaurre eta Ander Arzelus izan ziren 1932. urtean euskarazko lehen programa sortu zutenak. Astean behin ordubete egiten zuten, show antzeko bat, zuzeneko emanaldiekin: piano-jole bat joaten zen; abesbatzak joaten ziren kantatzera, eta bertsolariak ere joaten ziren, tartean Basarri bera. Eta Lizardik ere hartzen zuen parte.

Nolatan?

Bada, garai hartako intelektualetan ikusi zutelako irratia bazela

komunikabide bat euskara zabalteko balio zezakeena. Zoritxarrez, ez dago ezer jasota, garai hartan ez zutelako irratsaioak grabatzeko teknologiarik.

Zarautzar bihurtu den azpeitiar bat da hurrengoa zure zerrendan.

«Lizardik ere izan zuen irratiarekin harremana, eta zarautzarren artean lehena izan zen»

«Umeentzako saio bat zuten Herri Irratiak, eta astero izaten zen han Manolo Urbieta»

Joxe Mari Iriondo. Erreferentzia izan da irratigintzan. Jaiotzez ez da zarautzarra, baina urte askoan hemen bizi izan da, eta haren seme-alabak zarautzarrak dira guztiak.

Jarrai dezagun aurrera: Karlos Argiñano da hurrengoa, ezta?

Zarautzko enbaxadore handiena dugu gaur egun Argiñano, Andoni Egaña alde batera utzita. Eta hura ere ibilia da irratiaren. Telebistagatik egin zaigu ezagun, baina Herri Irratian eta Euskadi Irratian aritutakoa da. Ziur-ziur ez nago, baina uste dut euskarazko irratigintzan errezeta programak egiten hasi zen lehenengoa Argiñano izan zela. Herri Irratian hasi zen, besteak beste Maialen Iriarterekin, 1970eko hamarkada amaieran. Orduan hasi ziren euskarazko emisio erregularrak. 1982an Euskadi Irratia sortu zen, eta Herri Irratiari lekukoa hartu zion. Orduan han jarraitu zuen Argiñanok.

Manolo Urbieta ere ekarri duzu gogora.

Haren omenaldia antolatzen ari dira, eta nik ikusi ditut haren erreportajeak *Berria*-n publika-

tuta, esaterako, eta HITZA-n ere uste dut atera duzuela zerbait. Eta nik Manolo Urbieta euskarazko irratigintzarekin lotzen dut. Larunbat goizetan Herri Irratian umeentzako saio bat egiten zuten, eta astero joaten ziren Manolo Urbieta eta beste batzuk kantak abestera.

Andoni Egaña.

Bai. Ezaguna da bertsolaritzagatik, baina beti kolaboratu izan du irratiarekin. Orain *Amaraura* saioan aritzen da, eta orain dela 20 urte inguru, Arantxa Iturbek eta Jaime Otamendik *Goizean behin* irratsaioa egiten zutenean, han ere kolaborazioak egiten zuten; beraz, beti izan du lotura estua irratigintzarekin.

Zerrenda amaitzen ariko zaizu honez gero, ezta?

Bada, beste lotura asko ere badaude: esaterako, Euskadi Irratiko medikua. Medikuko kontsulta bat beti izan dugu, eta urte asko

an Julian Bereziartua izan da guzkerin. Azpeitiar bat, berriz ere, baina Zarautzen bizi izan dena hura ere. Bereziartuak erretiroa hartu die irratian, eta oraingo medikua ere zarautzitarra da: Felix Zubia.

Jesus, Maria eta Jose...

Itxoin-itxoin, gehiago ere badaude! Egun poesiari buruzko programa bat badago Euskadi Irratian, eta aurkezlea Jose Luis Padron Zarauzko bizilaguna da, jaiotzez legazpiarra den arren. Anjel Lertxundi ere bada beste kolaboratzaile bat, gaur egun ez, baina urte askotan gauza asko egin izan ditu guzkerin. Eta hor daude Garbiñe Uria eta Xabi Unanue zarautzarrak ere. Uriak bizi osoa darama irratian, mikrofonoen atzean bada ere; *Mezularia* saioan ari da lanean. Unanuek, berriz, *A Bildua* saioa aurkezten du.

Zeure programan, Faktoria-n, ere badituzue zarautzarrak.

Bai. Ana Galarraga zarautzitarra dugu, Elhuyarreko kazetaria eta teknologiaz eta zientziaz hitz egiten diguna; Makala DJ-a, hama-bostean behin etortzen dena; Imanol Epelde ere izan genuen kolaboratzaile, astearen errepa-soa egiten zuen.

Besterik?

Gaur egun desberdina da, baina gure garaian musikaren berri izateko modu bat irratia entzutea zen. Adibidez, garai hartan Herri Irratian Eneko Olasagastik eta Xavier Montoiak egiten zuten irratsaio bat, eta gero Euskadi Irratian Kaki Arkarazok... Eta Zarautzekin lotuta, irratia bidez ezagutu nituen OK Korral bezalako taldeak. Badakit iaz hil zela Lou Olangua kantaria... eta nik horrelako taldeak irratiarekin lo-

«OK Korral eta gisako taldeak irratiarekin lotzen ditut, haren bidez ezagutu nituelako»

«Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finala Arraio Irratian entzun nuen»

tzen ditut, irratia bitartez ezagutu nituelako. Beste belaunaldi batekoak dira, baina Anestesia bezalako taldeak ere irratia bitartez ezagutu izan ditut, horiek ere zarautzarrak.

Eta amaitzeko, Arraio irratia?

Hori da. Tarteka jartzen dut ikusteko zer egiten duten, *Zaratazarautz* saioa entzuten dut... Eta oroitzen naiz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finala Arraio irratian entzun nuela; izan ere, beste inork ez zuen eman. Noski, irratia nazional edo handiek beste lehentasun batzuk dituzte, eta irratia txikiak badira osagarri irratia handientzat hala-koetan.

Zarautz eta irratia lotu dituzu. Za-

rautz eta Manu Etxezortu lotzerik bai?

Baditut txikitako eta gaztetako oroitzapenak Zarautzekin. Umetan Zarautzera aitarekin eta amarekin etortzen ginen, baina gero, gaztetan, 20 urterekin-edo etorri nintzen behin lagunekin, eta Getarian gozo-dendan sartu ginen. Orduan errepide nagusiaren ondoan zegoen, frantziskotarren elizaren aurrean, izkina egiten zuen. Hor sartu, eta pasatu zitzaidan behin gauza bat, ordura arte sekula pasatu ez zitzaidana: saltzaileak nire ahotsa ezagutu zuen. «Zu irratikoa zara», esan zidan. Geroztik gutxitan gertatu zait, baina lehen aldian hemen izan zen, Zarautzen.

Zarautzen askok entzuten ote zaituztete?

Nire ustez Euskadi Irratia entzu-

teko ohitura handia dago Zarautzen. Bete izan da oso herri euskalduna. Atentzioa eman izan dit beti. Pentsatzen dut normalizazio arloan pauso asko egongo direla emateko, baina beste herri batzuekin alderatuta, hemen nabarmen aurreratuago gaude, edo daude, edo (kar-kar)... Dendetakak atentzioa ematen dit. Esaterako, Kale Nagusian Kinkilladendara sartu eta beti Euskadi Irratia jarrita izaten dute; Azken Portuko harategian, uste dut Patxi izena duela; Martiarena zapata-konpontzailearen dendan...

Zeharo zarautzartuta zaudela dirudi.

Bai, ez dakit... tira, zarautzarren mandamendu nagusia betetzen dut: bizikletan ibiltzen naiz, eta bizikleta zahar batean, gainera. Ikusten duzu, BH zahar batean

iritzi naiz elkarriketara ere. Horrek ere atentzioa eman izan dit Zarautzen. Oso toki egokia da bizikletan ibiltzeko aldaparik ez dagoelako—Vista Alegre kenduta,

«Zarauzko Getarian gozo-dendan sartu, eta saltzaileak nire ahotsa ezagutu zuen»

«Zarautzarren mandamentu nagusia betetzen dut: bizikletan ibiltzen naiz»

han ere bizitakoa naiz urtebetez—. Alde horretatik, nahikoa herri iraukorra da (kar-kar); bidegorri gehiago jarri beharko lituzkete agian, baina...

«Kirola eta musika izan daitezke entzule berriak lortzeko bideak»

O. Lete Arrieta

Irratiaren etorkizuna eta belaunaldi berriak irratira erakartzeko bidez ere hitz egin du Manu Etxezortu Euskadi Irratiako *Faktoria* irratsaioa aurkezleak.

Prentsa idatzia bidegurutzean edo amildegi ertzean dagoela esan daiteke. Irratia nola ikusten duzu, bai hemen, bai hemendik kanpo?

Ez dakigu zer gertatuko den. Orain arte ondo eutsi izan dio. Telebista agertu zenean, inork ez zuen apustu egiten irratia bitartean ere ikasten zen hori. Jendeak uste zuen irratia ez zuela etorkizunik. Eta irratia bilatu zuen informazioaren bidetik eta espezializatu zen, eta orain ematen du etorkizuna baduela. Ez dakit. Pixka bat erne egon behar dugu, zer gertatzen den ikusteko.

Gakoa non ikusten duzu?

Iruditzen zait belaunaldi gazteen egon daitekeela salto bat. Adibidez, orain 20-25 urte dituzten gazteen gurasoak irratiarekin hazitakoak dira, irratia bizi dute, entzuten dute. Baina hurrengo belaunaldiak entzuten du irratia? Bada, ez dakit. Lehen irratira iristeko modu naturala musikaren bitartez zen. Gaur egungo gazteek musika zuzenean Internet bidez ezagutzen dute. Hortaz, horiek musika ezagutzeko irratia beharrik ez badute, agian gero ez da hain erraza izango belaunaldi jarraipen hori bermatzea.

Horretan asmatzea da kontua?

Hor badago galdera nagusi bat, nola lortu hori. Ez da kezka berria: orain 20 urte ere irratiek kezka bera zuten. Eta gaur egun ere badute. Hau da, erreminta teknologiko berri horien aurrean, nola



Manu Etxezortu Zarautzen bizi da orain bost urtetik. ONINTZA LETE ARRIETA

aurkitu bere tokia; eta iruditzen zait kirola badela bide bat, zeren kirolzaleak dira neskamutilak; musika ere bada bide bat; umorea ere landu liteke; teknologia berriak... Informazioa beti egongo da presente, baina nik uste dut entzule berriak lortzeko bideak horiek izan daitezkeela.

Errepideak autoz beteta dauden bitartean, izango duzue entzulerik.

Bai, autoa bada irratia entzuteko toki oso egokia. Gero, jende askok gaur egun entzuten du irratia ez denbora errealean, grabazioak entzunda baizik. Gu ohartzeko gara gure eduki asko jendeak arratsalde kontsumitzen dituela *eitb.com/faktoria* helbidean sartuta. Normala ere bada, goizez lan egiten du jendeak eta arratsaldean ea irratian zer eman duten entzutea.

Gipuzkoarrak izango dira entzule gehienak. Beste herrialdeetan kopuruak hobetzea ere ba al duzue erronkatzat?

Ahalegina egiten dugu Bizkaian sartzeko, adibidez. Nik uste dut Durangalde inguru horretan en-

tzule asko ditugula; Bilbon ere entzule asko ditugu proportzioan, eta nik uste gainera etorkizuna hor daukagula, eta etorkizunean gehiago begiratu beharko genukeela Bilbora, etorkizuneko euskaldunak hor egon litezkeela uste dudalako. Nafarroa iparraldean beti oso presente egon gara, Iparraldean ere bai, eta Araba da etorkizuneko beste puntu bat. Hor uste dut gazte jendearen eta saskibaloien bitartez presentzia gehiago izan beharko genukeela; amu polita iruditzen zait.

Zeresan nahiduzu?

Nik uste dut gure irratia eta irratia guztien helburuetako bat etorkizunean ere entzuleak izatea bermatzea dela. Nola bermatu belaunaldi aldaketa hori. Eta kirola bada gaur egun gazte jendea erakartzeko gaia. Eta gasteiztarrengana iristeko modu bat bada saskibaloia, esan didatenez txoratuta daudelako kirol horrekin. Horrelako amuak erabili beharko lituzke euskarak, eta Euskadi Irratiak eta euskal munduak ere bai, gazteengana iristeko.

Euskadi Irratian lan egin izan duzu beti, 1991n bekadun gisara hasi zinetik. Komunikabideetako beste euskarriekin ez zara animatu inoiz?

Hasieran, bekadun gisara urteren bat egin nuen telebistan, baina bestela beti irratian aritu izan naiz. Aterik ere ez diot itxi ezeri sekula, baina irratia izan da beti nire ardatza. Eta hor gauza desberdinak egin izan ditut: kirola ez beste guztia probatutakoa naiz. Erreportajeak egiten hasi nintzen, lehiaketak aurkezten, gero salto egin nuen goizeko albistegietara, eta ia hamarkada oso bat pasatu nuen goizeko albistegia eta tertulia aurkezten, eta gero magazinera pasatu nintzen, 2007an.

Goizeko albistegia eta ondorengo tertulia 06:00etatik 09:30era izaten zen. 02:30erako lanera joaten zinen garaia zen hura, ezta?

Bai, denek galdetzen zidaten nola zen posible hain goiz jaikitzea. Denen kontrako bizitza neraman zentzu horretan; oheratu oso goiz, jaiki oso goiz... Alde profesionaletik oso aberasgarria zen, baina egia da gorputzarentzako ordutegi horiek gogor samarrak ere badirela. Baina tira, aldi baterako ondo dago, probatzeko.

Ez dakit ia hamarkada bat probatzea bakarrik den...

8-9 urte egingo nituen bai.

Irratian zuzenekoak egiteak energia asko eskatuko du.

Bai. Kazetaritzan oro har, zuei ere gertatuko zaizue, oso zaila da lana egin, etxera alde egin, eta munduan zer gertatzen den ez jakitea. Beste ofizio batzuetan ere gertatuko da, baina kazetaritzan 24 orduz zara kazetari: etengabe zaude jakin nahian, edo etengabe Twitterren begiratu, edo Interneteko atarian sartuz, edo irratia entzunez... erabat lotuta zaude gaurkotasanari, ez duzu sekula deskonektatzen, nolabait esatearren. Kazetaritza horrela da, eta irratia kasuan seguraski erritmo biziagoan, programa egiten ari zaren bitartean gaurkotatzeneko gauza asko gertatu daitezkeela, bereziki goizeko tarte horretan; oso erne egon behar duzu goiz osoan.

Hainbeste urte ofizioan, baina ilusiorik ez duzu galdu.

Niretzako irratia pasio bat da. Egia da ordu asko eman dizkiodala, nire bizitza pertsonalari kendu dizkiodala eta nire ingurukoek ere nabaritu dute, baina nik pasio handiz bizi dut. Eta horregatik ekarri dut Zarautz eta irratia arteko laburpen hau ere. Pentsatu dut nik kontatu dezakedanak interesa izan dezakeela, baina inportanteagoa dela irratiaz hitz egitea. Irratia egiten dugun pertsonak bagara inportanteak, baina inportanteena irratia bera da. Euskadi Irratia izan, Arraio irratia izan, Euskalerrria irratia izan... marka da garrantzitsua, irratia, esatarien gainetik. Hala uste dut nik.

● zarautz.hitza.info

San Martingo muinoak eta elizak istorio ugari gordetzen ditu, atzoko eta gaurko Azkoitiaren nortasunaren isla da eremua; misterioz betetako gunea izan da mendeetan, XX.ean herriratu zen arte.

San Martin, herriaren zaindari

Ane Olaizola Azkoitia

1555eko ekainaren 18a zen, eta Azkoitiko mendietan helduz zioan uzta. Ezerk ez zuen iragarri gertatuko zen ezbeharrak. Elosua aldetik zerrua ilundu zen bat-batean. Gero eta indartsuagoak ziren haize boladak, laino beltzez lagundutakoak. Laster batean harri-jasa suntsizaila botako zuen. Oso azkar gertatu zen guztia, eta Urrisari, Aistarri, Kortaberri, Kortatxo, Malmadi, Ussaselus... baserriak guttiz hondatu zituen. Beste etxe askok ere kalte handiak izan zituzten. Bizilagunek adierazi zuten, elikagairik gabe geratu ziren.

Egoeraren larritasunaren aurrean, udaletxean elkartu ziren hurrengo egunean. Gertatutakoa aztertu, eta halako oinazearen jatorria jakin behar zuten. Orduko pentsakerarekin bat, Jainkoarekiko beldurrean oinarritutako erlijiotasunaren aurrean, ziur zeuden egin zituzten bekatuengatik onartu zuela goikoak ezbeharrak. Gehiago erreza zezaten Jainkoaren deia zela ulertu zuten bizilagunek. Horregatik, halako gertaeren aurrerako protokolo bat jarri zuten martxan urte horretan bertan. San Martingo basiliza aukeratu zuten konjuruak egiteko.

Urtez urte, maiatzetik ekainera bitartean, apaiz bat bertan egon zedila adostu zuten, uzta galtzeko beldurrez. Egunerok eskaintzen zuten meza, eta konjuru eta erritu artean, laino susmagarriak ikusten bazituen, kanpaiak jotzen zituen. Juan Bautista Mendizabalek, herriko historialaria izanik, ondotxo daki pasarteak. Duela 458 urte San Martingo basilizan hasi zituzten kanpaihotsak ez dira isildu oraindik, baina egun urtean behin baino ez dituzte astintzen; azaroaren 11n, San Martin egunean. Oso bestelako testuinguruan, eta askorentzat ezezaguna bada ere, arbasoek egiten zituzten errituak gogoratzen dituzte egun horretan azkoitiarrek.

Mendez mende, misterioak inguratutako muinoa izan da San Martin, han egin dituzten jardueren ondorioz. Azkoitiarren uzta bermatzeko egiten zituzten erritu asko. Kanpaiak jotzeaz gain, kandelak piztu edota kanpairoa gatzat botatzen zuten; egun, askorentzat ulertezinak izan daitezkeena kontuak dira, baina orain gutxira arte mantendu dira.

Gaixotasunekin lotutako gunea ere izan da San Martin. Gai-



San Martingo eliza. ANE OLAIZOLA

tzak jota zeudenak hara eramaten zituzten sendatzera. Herritarrek errespetua zioten basilizari, eta larderia hori aurreko menderaino mantendu zen herrian.

Antzinako eta egungo Azkoitiaren lekuko da San Martin basiliza; atzoko eta gaurko herriaren nortasunaren isla. Ezbairik gabe, ikur esanguratsuenetako bat. Magal baten tontorrean zutik, herritarren zaindaria izan da, gizaldiz gizaldi Azkoitiko bilakaeraren ikusle eta parte. Historia luzea eta istorio ugari ditu gordeta. Horren fruitu da egun bizirik duen ondarea museora eraman izana, askorentzat hain ezaguna ez bada ere, oraindik orain herriratu behar baita.

San Martinen arrastoak ez dira atzokoak. San Martiniren inguruan topatutako erreferentzia zaharrena 1324koa bada ere, Mendizabalentzat Azkoitiko, eta oro har, Euskal Herriko historiako «sustarretako bat» da basiliza; 1995ean jabetu ziren horretaz. San Martingo gainak interes ar-



VII. eta VIII. mendeetan ehoketa lekua zela frogatu zuten 1995ean. A. UDALA

keologiko handia du. VII. eta VIII. gizaldietan ehorzketa tokiak izan zen inguruan finkatutako biztanleentzat; kristautasuna iritsi baino lehenagoko asentamentuentzat, hain zuzen. Aditu batzuen arabera, Europa iparraldetik heldu ziren tribu haiek. Beste ba-

tzuk, berriz, diote Euskal Herrian jatorria duten tribuak zirela San Martini bizia ematen zietenak, paradoxikoa bada ere.

Herriaren sorrera ere ezagutu du muinoak. Inguruko magaletan bizi ziren bizilagunak XIV. mendean, eta Azkoitiari hiri-gu-

tuna eman zioten dokumentua San Martinek bereganatu zuen. 1324ean izan zen hori, eta orduko dokumentuan irakur daiteke hango maldak ez zuela egun duen izena, Beidazar baizik. Euskal etimologiari jarraituz, Beidazar izena goitik begiratuta jarri zitzaioala ondoriozta daiteke, gainera. Gerrak bertatik bertara ezagutu zituen, eta leku estrategikoa izanik, bandoak bertara joaten ziren babestera. Hango biztanleak, arriskuaren eraginez, bizitokiz aldatu ziren. Hiri-gutuna hartu eta zazpi urtera orduko herrigunera joan ziren bizitzera, Plaza Berri ingurura. Izan ere, Europako gerretan gotorleku modu erabili zuten basiliza, eta horren eraginez behin baino gehiagotan kaltetu edota suntsitu zuten.

Mendeak atzera, joan-etorrirako igarobide gisa erabiltzen zuten muinoa. Iraurgi bailaratik Goierri eta Urola Garai aldera joateko bertatik pasa beharra izaten zuten orduko biztanleek. Bidean ikusiko zituzten Beidazarko San Martin, Aginagako San Martin eta Urretxuko San Martin. Horiek guztiak lotura zuten erakugarria da izena, Mendizabalen arabera.

Baselizaren bereizgarrietako bat alde banatan dauden erloju handiak dira. Erlojuaren lehenengo erreferentzia XVI. mendean aurki daiteke. Hasiera batean, soilik kanpaien bidez ematen zuten orduen berri, esferaren bidez. Egundagoen erlojua 1859koa da. Hori egokitzeko dorrea egokitu beharra izan zuten orduan; egun, zati bat besterik ez da jatorrizkoa.

XX. mendean, herriratu

Muinoa ez da beti egon, ordea, misterioari lotuta. XX. mendean ikusi zuen argia, eta orduan jendetartu zen auzoa, etxebizitzak egin zituztenean. Auzolanean eta ahalegin handiz egin zituzten mende hasieran, eta eredugarria izan zen gizartearentzat. Alfonso XIII.ak inauguratu zituen etxebizitzak, eta horrek erakusten du eredugarriak izan zirena. Orduan hasi ziren, esaterako, auzoko festak ospatzen, eta orduetik urterotero basiliza haurrez eta helduz betetzen da, eta kanpaihotsak izaten dira entzungai.

Malda sakratuaren magalean zutik jarraitzen du San Martinek, herriaren historiaren lekuko. Herria eta herritarrak aurrera egiten ikusi ditu gizaldiz gizaldi, alde banatan dituen erloju handiekin, lau begi handi bailiran.